

Balore Merkatuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 228. artikuluan ezarritakoaren arabera, Caja Laboral Popular Coop. de Crédito erakundeak honako gertaera garrantzitsu hau jakinarazi dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari merkatura hedatzeko:

## **GERTAERA GARRANTZITSUA**

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito erakundeak Espainiako Bankuaren jakinarazpen bat jaso du eta bertan, egindako berrikustean eta azterketa ikuskatzailean oinarrituta, 2017ko ekitaldian erakundeari aplikatu dakiokeen kaudimen-errekerimendua ezarri da.

Errekerimendu horrek eskatzen du Caja Laboral Popular Coop. de Crédito erakundeak, maila indibidualean nahiz bateratuan, honako phased-in gutxienerako ratio hauei eustea: Common Equity Tier 1 (CET1) kapitalaren % 7,38 eta Guztizko Kapitalaren % 10,88.

Kapital-errekerimendu horren barnean honako hauek hartzen dira:

- 1. zutabearen gutxienerako errekerimendua CET1en % 4,50 eta Guztizko Kapitalaren % 8,00.
- 2. zutabearen errekerimendu ikuskatzailea: % 1,63.
- 2017an aplikatu daitekeen kapitalaren kontserbazio-marjina: % 1,25.

Joan den irailean norberaren baliabideei buruz egindako aitortzean, Caja Laboral Popular Coop. de Crédito erakundeak bere phased-in bertsioan honako hau aitortu zuen: CET1 kapitalaren % 15,46ko ratioa eta Guztizko Kapitalaren % 16,26ko ratioa. Bere fully loaded bertsioari dagokionez, data horretan bertan, adierazle horiek honako hauek ziren: % 16,44 eta % 17,25, hurrenez hurren.

Arrasate, 2017ko urtarrilaren 2a